UGT INFORMA

UGT Zerbitzu Publikoak

UGT INFORMA

2026ko azaroaren 20a

Gipuzkoako egoitzak eta eguneko zentroak

UGTk Gipuzkoako egoitzen eraginkortasun orokorreko hitzarmena sinatu du

Benetan pozten gara azkenean Gipuzkoan eraginkortasun orokorreko hitzarmen bat izatea posible delako. Urte gehiegi dira hitzarmen barik, sindikatu nagusiaren arduragabekeriagatik.

Testuak dakartzan aurrerapenen artean, hauek nabarmentzen dira: **plantillako gehiengoak lanaldiaren hiru laurden bermatuta izango ditu gutxienez**, **KPlaren eguneratzeari gehitzen zaion soldata igoera**, **gerokultoreen soldatak 2.000 euroko muga gainditukо du**, **aldi baterako ezintasunean soldata osoa kobratuko da lehengo egunetik**, igande eta jaiegunetan lan egiteagatik ordaintzen dena nabarmen hobetzen da, eta **60 urte betetzean txanda hartzeko eta ordu gutxiago lan egiteko aukera**.

Aurreko hitzarmenei esker (beti UGTk sinatuak), 15 urte baino gehiagoz igo ahal izan dira langileen soldatak, eta **Gipuzkoako egoitzetako langileen soldatak estatu osoko onenak izan dira**.

Pena da aurretik akordiorik lortu ez izana, **inplikatutako alderdi guztiei sufrimendu handia saihestuta**: egoiliarrei, senideei, langileei...

Horren erantzule betikoak egiten ditugu, gatazkak artifizialki luzatzen eta handitzen baitituzte, marra gorriak jarriz, azkenean desitxuratu egiten direnak, **hasieratik beste batzuek proposatzen ditugun proposamen errealistagoekin akordioak lortzeko**.

UGT-Zerbitzu Publikoak
Colón de Larreátegui, 46 BIS 7º -48011 BILBAO. Tel.: +34 944 255 612
www.euskadi.ugt-sp.es